

## Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella

(Material para el estudio de la variedad dialectal del Alto Navarro  
Meridional de la zona estellesa)

Se trata de un Sermonario, hallado en el pequeño lugar navarro de Muzqui, Valle de Guesálaz, al norte de Estella. Un fajo de 33 cuartillas de papel de hilo, conteniendo cuatro sermones en vasco, predicados en el último tercio del siglo XVIII, sin duda en las Parroquias del Valle guesalaztarra.

El curioso documento se conservaba en el archivo familiar de la Casa Infanzona de los Martínez de Morentin, en aquella localidad.

Los sermones son de los «de Misión», del Santo Tiempo de Adviento, más bien que de Cuaresma.

Los dos primeros están escritos en letra corrida; los dos últimos, en trazos más premiosos, de mano diferente, a pesar de la semejanza de contenido y de lugar del hallazgo.

El autor de los dos primeros, a juzgar por la letra, comparada con la de los Libros de Partidas de la Parroquia muzquiiana, resulta ser D. Francisco Martínez de Morentin, Abad de aquella Parroquia a partir de 1765, que venía siendo antes Beneficiado de la misma, por los años 1763, y muere en 1782. El autor de los dos restantes, debe ser el que en los Libros Parroquiales aparece como Abad desde 1783 hasta 1797, D. Francisco Antonio Martínez de Morentin, familiar sin duda del D. Francisco.

\* \* \*

Por el contenido doctrinal de los sermones, se ve que sus autores poseen formación teológica-pastoral adecuada para su cometido de «predicador cuaresmero» de la época. Su forma de expresión, por su parte, es de una espontaneidad total, que refleja el modo de hablar corriente de la tierra donde predicán, circunstancia, ésta de la espontaneidad, que aumenta el interés del hallazgo de estos textos, como auténtico documental de la variedad dialectal

del Alto Navarro Meridional, que se hablaba en Tierra de Estella en el siglo XVIII.

El estilo de nuestros Martínez de Morentin, no es el mismo del también navarro y en parte contemporáneo Domingo de Lizarraga de Elcano, el cual en comparación resulta más gramatical, más cultivado, menos espontáneo, incluido, sin duda, por Larramendi. Los Martínez de Morentin no conocen los trabajos gramaticales larramendianos. Con todo, al correr del tiempo, se ve que también a ellos les alcanza la preocupación, tan larramendiana, de la pureza del léxico de sus predicaciones, como se manifiesta por ciertos intercalados del texto, en que, a una expresión castellanizada, se sobrepone otra más propiamente vasca (un *eguitazcoac* sobre un *verdaderoac*; un *alchaturic* sobre un *ensalzaturic*).

\* \* \*

Sobre las fechas concretas del siglo XVIII en que los sermones fueron predicados, hay indicios bien precisos. En efecto, cada sermón lleva en su encabezado, las fechas de sus sucesivas predicaciones.

El Sermón núm. 1, reza así: «Para el Domingo primero de Adviento, año de 77».

El núm. 2 reza: «Para el Domingo 4.º de Adviento, año de 87»; y más abajo, con letra más premiosa: «Año 96»; y en hoja aparte, de la misma letra: «Dominica 1.ª de Adviento año 92, y año 95, año de 97».

El núm. 3 no lleva indicación de fecha.

El núm. 4 reza sencillamente: «Año de 91» en la misma letra.

Datos todos ellos, muy interesantes y precisos para establecer y confirmar la cronología de la vida de la *Lingua Navarrorum* en Tierra de Estella.

\* \* \*

## OBSERVACIONES GENERALES

Aparte peculiaridades dialectales de la conjugación verbal (*desengañatu ceit*, *eror bacindaiz*, *luzatu balez*, *bizi zada* etc.) que habrán de estudiarse por los lingüistas, cabe registrar como observaciones generales, las siguientes:

1) En las formas verbales, sistemáticamente se une al verbo su auxiliar: *equenducociola*, *guelditucecela*, *sortuden*, *sortucenean*; con todo, *gueldicen celaric*...

## TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

2) Se suprime sistemáticamente la *n* final de las terceras personas del pretérito imperfecto del indicativo: *aterace* por *atera cen*, *ez zu arqitu* por *ez zuen arqitu*, *libratucide* por *libratu ciren*, *disponitu zue* por *disponitu zuen*, *galdeiten zio* por *galdeiten zion*, *correspondicen zue* por *correspondicen zuen*... aparte las diferencias ortográficas naturalmente.

3) Del mismo modo, se suprime la *n* final del sufijo *-quin*: *amarequi* por *amarequin*, *exemploarequi* por *exemploarequin*, *izaqui* por *itza(re)-quin*...

4) El sufijo del dativo, *-i*, *-ri*, *-ari*, *-eri* hace frecuentemente *-gui*: *discipuluegui* por *discipuluei*, *discipulueri*; *gaiztoegui* por *gaiztoei* o *gaiztoeri* (que en algunas zonas resulta *gaiztoedi*)...

5) En el presente habitual del indicativo con participio en *-ten* o *-tzen*, al aplicar a éste el auxiliar, se produce una rara metátesis —no desconocida del todo en el Alto Navarra Septentrional de Oyarzun— intercalando parte del auxiliar *ditu*, *dizu*, dentro del participio de referencia, resultando expresiones como las siguientes: *jateintu* por *jaten ditu*; *errateinzu* por *erraten dizu*; *concienciac emateinxquizun aldabadac* por *ematen dizquitzun*; *atraerazteintu* por *ateraeraxten ditu*...

6) De los numerales *bat*, *batzuec*, se hace un sufijo *-at*, *-azuec*: *ainguerat* por *aingueru bat*; *penitencie orrorosoazuec* por *penitencie orroroso batzuec*; *eror bacindeiz bozuatean* por *eror bacindeiz bozu batean*...

Andoáin, 11 de junio de 1973

Manuel de LECUONA

### I

Para el Domingo primero de Adviento, año de 77.

*Erunt signa in sole et luna et stellis.* Luc. cap. 21.

Emancionean Jangoycoac noticia Isaias profetari, Jerusalengo Ciuda-dea izanbearzuela destruitua, erraten digu Profeta Sanduonec ainverce susto dolore eta afliccio errecibituzuela, ecce (sic) gueldituzela sentidoric bague eta erorizela lurrera illic vezala. *Visio dura nuntiata est mihi, ...propterea repleti sunt lumbi mei dolore; angustia posedit me; corruí cum audirem;* eta ainverce asustetu balibace Profeta ure noticia onequi, cembat gueiago vearguinduque gu asustetu egungo egunean? bada Jangoyco verac ematendi-

gu noticiebat guzis dolosoago (sic) eta aviso bat guzis sensibleago cein baita urbil dagola ya juicio Universalco egun ure, ceñetan izanbeardu destruitue mundu guzie, eta orduan escatuveardigula contu erchibat mundu ontan eguin et eguin eztugun gucies. Noticie formidablea por cierto!

Vicitu gaicen bada beldurtasun andibatequi, eta ajusteturic Jangoycuen legue sanduerequi, proponicendigu Juez Divinoarrec iegungo evangelioan Mundu miserable onen azquen fiñe, ceñetan izainda Jucio universale tremendo ure, emateco contu eginditugum obra gucies. Bañe vereala occurricenda dificultadebat, eta da gu illorduco eguitenden juicio particular artan ezpalinbada gueldicen, den gauzaric chiquiena, pensamentu ocultoetereño, examiñatu eta sentencietubague, certaco da bigarren Jucio Universalure? Guciec egonvearbadute // sentencieturic ya egun artan ilcidan esquerostic, certaco eguin bearda Juicio Universalco actu publico eta solemne ure? eta Jucio particularan emanden sentencie ezpalinba daique mudatu eta ez errebotatu, certaco determinatu otedu Jangoycuc veste Jucio Universalala? Adizace, nere Catolicoa, certaco: Jesuchristoren honra eta gloriaraco, cergatic nola Jaun Soberano au icusibaice guregatic abatituric eta despreciaturic guizonen artean, icusidezaten ensalzaturic (encima: «alchaturic») eta honraturic bere trono Magestuosoartan, eta baita ere Justoen glorie yagotaco eta condenatuen tormentu yagotaco, icusten diralaric ainverce genden aurean, vazuc despreciaturic eta abatituric, eta vercebazuc ain honraturic eta aplaudituric Ceruco Erregue Soberanoarren ganic.

Bai, nere Catolicoac, artaco determinatu du Jangoycuc Jucio Universalco egun ure! Orgatic amenazacentu Jangoycuc vecatariec severidade andibatequi iz even medios: Nic daitu zaituztet eta ez zadate etorri eman dicet escue eta eztuce veguiretu eta ez artu, menosprecietudituze nere consejuec eta eztuce casoric eguin nere castigoes; bada ni burlatuco naiz zuetaz, eroricen denean zuen gañera pensacen eztucen calamidadebat, arrapacen zaituztenean erioceac tempestade batec vezala. O, eta pensatu bezenezate noicean noiz lan terrible ontan! Cein facilmente (encima: «ki») despreciatuco zinduzque mundu ontaco ondasun caduco eta aparente evec, aprisionacen bai zaituste! eta cein facilmente villatuco zinduzquete ondasun verdaderoac (encima: «eguitazcoac») eta eternoac! bada desgracietue milla aldís, pensacen eztuena azquen ordu ontan eta extituenac corregicen vere vicioae, cergatic cumplituco daquiote (verce anizeri vezala) Jangoycuen amenaza terrible au. Aurrera seguiceco, escazagun gracie Maria Santisiman medios, erraten duglaric (sic) Ave Maria. //

// *Erunt signa in sole et luna et stellis.* Luc cap. 23.

Ala nola den fedesco gauza gucioc ill veiar dugula, Sn Pauloc intimacendigun vezala, *Statutum est hominibus semel mori*, ala da fedesco gauza gu-



TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

cioc erresucitetu veardugula Juicioco egunean. Au eztaquigu noiz izainden, cergatic ala dauque ordenaturic Jaun Soberano arrec bere sabidurie andirequi, aniz motivorengatic; lemibizico (sic) motivoa eta principalena da, veidur onequi gauden veti eta instante (sic) prevenituric emateco contu Jangoycoeri gure obra gucies, eta eztezagun lucetu converticea eta penitencie eguitea. Vigarren motivoa da, *cergatic* balequite *guizonec* noiz izain lizaquen Juicioco egun ure, edo noiz illvearduten, iniorec ere ezluque casoric eguiñen ongui vicieas eta ez serbizaceas Jesu Christo gure Jauna.

Eta orrequi gucierequi icusten dugu egungo egunean christio (sic) gueienac daudela ain engañaturic Demonioanganic eta veren amore propioanganic, ece, apenas arquicenda inior ere, naiz dela zarrago eta naiz gaizquiago dagola, ezpaitu pensacen ciertoqui, vicitu vearduela aniz denboraz. Eta emendic seguitenda lucecea eguitea obra onac, eguitea errestucio (sic) honra eta haciendarena egunetic egunera eta urtebatetic vercercera (sic), eta guisa ontan arrapaceintu erioceac derrepente, emanbague denboraric disponiceco dausere eta justificaceco veren animac, eta ala izatenda aien erriocia (sic) nola izanducen aien vicie; O desgracie desgracie guciena!

Bañe ezbalibadaquigu ere noiz izainden Juicio finaleco egun ure, erraten digu egungo Ebangelioac manifestatucoduela Jangoycuc lenagotic señalearic icaragari bazuequi. Sn Juan Gloriosoac erra-// -tendigu, lenbico señalearic izaindela au: Etorrico da Gizonbat (sic) (edo obequiago errainnuque animalebat) gucis infamea eta abominablea, cein izainda Antechristoa; au segun dioten Autore sagratuec, izainda Babiloniaco Semea, eta nacione (sic) Judioa, eta ezta izain Matrimonioco semea, solo, vecatutic egendratuquecoa edo adulterinoa. Predicatuco du onec irur urte eta erdis, procuracenduelaric perverticea eta apartacea gendeac gure fede Santu eta Catolico ontatic, eguitendituelaric milagro aparente eta falsazuec, sifistaarazteco eztela ala gure fede Sandue; eta ezpadute nai sinistatu arrec predicacen duena, castigatuco ditu eta martirizatuco ditu crueldade andibatequi, eta guisontan engañatucodu aniz gende.

Denbora ontan disponitucodu Jangoicuen Providencie Divino arrec ateradaizen Paraisotic Elias eta Enoch, eta evec predicatucodute verce irur urte eta erdis, Antechristoac predicatu zuen Pueblo aietan deseitendutelaric Antechristoac eraiquizituen (?) erroreac eta engañuec, eta acabatu orduco veren predicacioa equenduco diote vicia Antechristoac eta egoindre even corpucec zaticaturic plaza eta ongarricunceac barrena irur egunez, eta irugarren egunean erresucitatuco ditu Jangoicuec eta igoco ditu cerura, gueldicenditularic asombraturic veguire dauden guciec. Jaichicoda guero Sn. Miguel Ainguerue ezpata batequi, eta equenducodio vicie Antechristo guizon infame arri, eta parill (?) ondoan concedico ditu Jangoicuec verrogei egun

eguindezaten penitencie fedean flaqueatuzuten eiec. O, cer pasageac evec, nere Catolicoac! //

// Pasatu ondoan verroguei egun evec, illunduco dire Yguzquie eta illar-guie, izarrac erorico dire lurrera asombraturic, bosque edo oianetan dauden animaleac juaindira marrusca desesperaturic campo guciec barrena, eta en fin icusiric orduen vicidirenac señale evec eta verce aniz ain icaragarriec, guelditucodira illic de puro susto. Señale evec esqueros erratendigu Sn Alberto Magnoc juntatucodirala munduco su guciec eta isaguico zaio Mundueri laualdetatic ainverce indarrequi ece dembora guchis gueldituco dire aus viurturic munduco edificio eta Palacio soverbioenac.

Abrasaturic bada mundua guisaontara, sonatuco du Sn Miguel Aingue-ruec trompeta formidablebat daizentucla difunto guciec Josafatgo Vallera, eta erraindiote: *Surquite* (sic) *mortui, venite ad iudicium* gorazaite illic zaustenak eta zatozte juzgatuec izatera. Ain andie izainda trompeta arren sonidoa, ece, aituco da zeruen eta infernuen, eta ain eficaza ece obedituco diote elementu guciec, eta ala atraco dire ceruco eta infernuco anima guciec eta juaindira veren corpuzac arcera enterratuec izanzidan lecura (eta unituco dire veren corpuzequi). Bay, nere catolicoac: gucioc erresucitetu veardugu, bañe ez gucioc guisabatera: obra onetan empleatuciden anima ayec erresucitatuco dire ermosure (encima: «edertasun») andibatequi, eta topatucodituzte veren corpuzac Yguzquie baño arguiago eta sartucodire an contentu andi-batequi; baña al contrario anima condenatu aiec topatuco dituste veren corpuzac ciquinqueries veteric, eta corrompituric eta sartuco dire an tristeza andibatequi. O, cer diferencie! bazuec gloria yagotaco, eta verce bazuec yago tor-// -mentu yagotaco. An icusico dugu munduontan atencioec eramocituena erresucitacendela Diabruac baño isusiago, eta despreciaturic egonduce-na Yguzquie baño arguiago.

Erresucitaondoan guciec juan veardugu Josafatgo Vallera; onac juain dira Aingueruen compañian; bañe gaiztoac eramocoituzte Demonioñoac arras-traca cadenabazues loturic. Eta guciec juntatu ondoan icusicodute etorcen Jesu Christo gure Jauna Ainguru (sic) anicen eta vere Ama Santisimaren compañien, nor egoinbaita escubietaco aldean. Jesuchristo gure Jauna egoin-da aurtegui (sic) severoatequi goitico aldean; veitico aldean infernue ede-guiric ecubietaco (sic) aldean vecatuec acusacen, ezquerretaco aldean aniz demonio, verdugo cruel bazuec vezala esperacen noiz izain diran condena-tuec, emateco tormentu desdichatu aiegui (sic), eta varrendic conciencie afligicen. Cer eñendu orduan vecatari miserableac? nora acuditu codu? edo nor deitucodu? =

Vaperan culpac, bada, nere Catolicoac, izaindira fiscale eta acusadore, eta ontaco ideguicodire Conciencien liburuec Sn Antonio de Paduec erraten-digun vezala. *Judicium sedit et libri aperti sunt*; liburu aietan icusico dire

TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

claramente vecatu grave eta leve cometitudirenac, an arquitecodire gure iz, obra etapensamentu guciec, eta cer intenciorequi eguinditugun; gucie, gucie, nere catolicoac, manifestatucoda an, guizonaren viozean pasatudiren gauce-ric ocultoenac; dio Sn Pabloc publicatucoda dituela Jangoycuc egun artan mundu gucier, eta Sn Basilioc erraten du tormentu yago izaindela au gaiztoendaco, infiernuen errecen egotia (sic?) baño *Plus torquentur iniqui peccatorum pudore in extremo iudicio quam cum fuerint igni eterno traditi*. An icusico tugu aniz ipocrita, iduriarasten beizute emen, sandue- // -nac cidala, gaiztago eta isusiago dirala Diabru guciec baño; an icusico dugu, emen cirudienac Santa Catalina bazuec cidala eta ya ezcequiola falta verceric solo canonizacea, espiritu infernala guciec baño gaiztoago dirala. O, cer berguenza pasatucoduten an evec guciec, eta especialmente vere vecatuec isilcen citustenac confesioan, icusten dutenean Jangoycuc manifestaceintuela mundu guciec aurrean veren condenaciotaco aien secretu guciec?

O, desgracie, eta dolorea! *quo fugiet peccator, sic deprehensus?* nora acudituco dute vecatari miserableac? cin (sic) abogatu daitucodute defendaceco, *quem patronum rogaturus?* Examinatu ondoan causa guciec eta componduesqueroztic procesoac izulcodu Juez Soberano arrec venignidade andibatequi vere aurtegui (sic) hermoso ure onetara eta erraindiote: *Venite benedicti Patris mei* etc. «Zatoste nere Aitaren hume (sic) vedicatuac, eta gozazace ceruco erreñue zuendaco prevenituric dagona, munduec principio izandu zuen esqueros; zatoste nere viozeo hume maiteac Patria celestiale ontara noraco izan baiziñate sortuec eta aciec; zatoste nere Ama Santissima- ren hume dichosoac aren compañie Amable ure gozazera.

O, cer noticie alegrias vetea onendaco! baña cein icaragarria condena- tuendaco, ceñec ere aituco dute verece (sic) sentencie contrario eta formidable ure Juez Soberano arren ganic, erraindiote bada oiur terriblebatequi: *Discedite a Me maledicti in ignem eternum*: «Apartazaiste Nereganic mada- riquetuec infiernure zuendaco eta Demonioendaco baitago preparaturic; zuaste eternamente (encima: «seculaco») su eta garrean egotera Demonioen compañian; ezindute nai izandu nere bedicioa, zuaste orai nere maldicioare- qui calabozo infernale aietara. *Discedite* etc. //

Valgame Dios! (encima: «Nere Jauna!») Aitabatec egostendun mal- decioates ainverce veldur izan veiar balinbada, cer veldur eztute izain des- venturadu aiec icustendirenean madaricaturic seculaco Jangoycuenganic? Bañe einzace contu icusten direnean despeituric Erregue Soberano arren ganic seculaco, erraten diotela dolore eta sentimentu andiatequi: O, nere Jauna, ya que ta ezgaden digno zure erreñura juateco, concedizaguzu zure piedade andiorrengatic egotea siquiera zure oñen azpien! Eta erraindiote: *Discedite a me*: «Apartaceiste nere ganic, malvatuec. Eta proseguítubalezate erraten: Jauna: yaqueta igorten (?) gaituzun zureganic, iguzu siquiera zure vedicioa

despeiceco seculaco; eta erraindu: Ez, solo madaricaturic juain zadate eta aliqueco maldicioric andienarequi: *Discedite a Me, maledicti*. O, justo Jueza: yaqueta egostendiguzun zure maldicioa, yguzu siquiera zure misericordiegatic descansaturic gaudequen lecubat. Ez, calabozo perpetu aiec eta su eternoa izainde zuen descansue; *In ignem eternum*. O tormentu terriblea!

Juicio terribleau, nere Catolicoac, izainda guero; bañe oraidanic izan veardiogu veldur. Gaiztoen condenace au izainda an, bañe vecatu mortalean dagona condenaturic dago ya mundu ontan. Norec, bada, nere catolicoac, nai izanveardu ibilli condenaturic munduontan? Ea egozagun guere baitatic ainverce gaiz (?) egozagun campora condenacio au Jesus Soberano onec eracusi cigun vezala presentatu ziotenean andre vecataribat eta asice orduan escrivicen arrausean, *digito scribebat in terra*. An escribicencitu vecatarien culpac eta errausean escrivicerequi manifestatu cigu facilidade andierequi borraratu dezazquiguquela; oñequi ivilcegadelaric pausu onetan, escuqui iteintugularic obra onac, eta urerequi ere bai eguiten dugularic negar gure vecatuengatic eta erratendiogularic JESU CHRISTO NERE JAUNA etc. FINIS. //

## II

(En la cubierta: «Dominica 1.<sup>a</sup> de Adviento, año 92, y año de 95, año de 97»).

(En el interior: «Para el Domingo 4.<sup>o</sup> de Adviento año de 87»).

(Más abajo: «Año 96»).

*Venit Ioanes predicans Bautismum penitentie in remisionem peccatorum*. Luc. cap. 3.

Erregue Herodes Ascalonita cegolaric Reynecen Judeaco Erreinuen, aterace mundure Aman seveletic sortuden sanduric andiena, Sn. Juan Bautista Gloriosoau Jesu Christoren Precursore Divinoa. Jaiocce bada Sandu gloriosoau sei illavetes lenago gure Salvadorea baño, eta nola ainverce maravilla suceditu baicida, ala Sandu au sortucenean, nola gure Jaunaren nacimientuen, veldurtuce Herodes vietatic vatec equenducociola vere Erreñue, eta orgatic publicatuaracizue Edicto impio eta cruel ure ceñequi manacenzue vi urtetatic veraco aur guciegui (sic) equenducequiotela vicie ustes guisa ontan illen cituen viec, eta guerostic guelditucocela veldurric gabe. Executuce edicto au, bañe ez zue conseguitu vere intentoa Herodesec; viec libratucide (sic) arren escuetatic. Sn. Juan Gloriosoau noren asumptoa dauquegu egungo Evangelioan, libratuce guisa ontan: Adituzuenean vere Amac, Sta. Isabel gloriosac, edicto cruel au, eramazue vere semea Desiertoatera (sic) eta an egonduce vere Amarequi ariqueta ill artean Herodes.











## TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

Au ill cenean, izulice vere Ama vere echera, gueldicen celaric Sn. Joan Desiertoan penitencie orrorosoac eguiten, bada ezue jaten verceric baicic velar bazuen zañec eta ezti guchibat silvetrea (sic) eta insipidoa. Arren vestidoa ze zamarrabat zerdazcoa petriñebatequi loturic, guisa ontan pasacen zitue egunec eta gauec, disponicen celaric oracionequi, baruerequi eta verce penitencie genero guciequi guero exercitetu vearzuen ministerioraco. Cergatic nola solo sortu baice predicaceco penitencie // Mundu gicieri, nay izanduzue pasatu Vici modu au predicaceco yago exemploarequi, izaqui baño.

Oguei eta amar urte cumplitu cituenean paratuzue Jangoycoac Vere izeren eficacie gucie Sn. Juan Gloriosoaren bayten, eta disponituzue ateraceyen desiertoac cumpliera vere oficioarequi, eta aterace aingueruet eguñic Jordango Regione gucie barrena predicancen (sic) mundu gucieri disponitu zezatela Ceruco Videa veren obra onequi: *Parate viam Domini, rectas facite semitas eius.*

Bay, Catolicoac, eztaude Ceruraco vi vide baño yago (sic): edo inocencie, edo penitencie; eztago medioric: edo eztuze eguin vecaturic bateietu esqueros, edo izanzadate (sic) vecatariec. Eta norc presumitucodu conservacendule Bautismoan errecibituriqueco gracie eta inocencie? eta ezpduce conservacen, norc presumitucodu dispensacea penitenciare rigoretic? Villazace Catolikoak verce viderenbat albaduce, baña eztuce opatuco (?). Fingizaze naiducen sistema, forgazaze antojacenzaicen vizimodue, pretextazaze eztuzula osasuneric, adin anizco duzula, eztizula permiticen zuen estadoac, edo villazaze verce privilegiorembat eximiceco penitencie eguiteco lege ontatik; baña dealde zabiltzete; eztago verce partidoric cer artu baicic edo de sein vecatuec penitenciarequi vici gaden vitartean, edo erre eternidade batez; edo infernue edo penitencie.

Cer penitencie ez zue eguin Jesu Christo Verac solamente cergatic cargatue gure vecatuequi eta cergatic artuzuen (sic) vecatarioen apariencie? Sanduric inocentenac pasatu zute veren vicie penitencie orrorosoaten. Cenbat demoras culpe leve bazuen gatic busticenzute lagrimequi jaten zuten ogue? guc eztezaquegu ucatu izan garela vecatariec, eztugu eguin penitencieric eta naidugu salbatu? Certan fundacenda bada gure confianza? Jesu Christoren merecimendu sanduetan? ez da dudaric, evegui zorko diotegula gure salvacioa, salvacenbagada. Baña izain oteda penitencierik eguin bague? Adizagun cer erraten digun Jesu Christo verac: *Nisi pe- // -nitentiam egeritis, omnes silimiter peribitis.* (Luc. 13). Ezpduce eguiten penitencie, guciec perecituco duce erremedioric bague. Au erranzuenean Jesu Christoc, ez zue ignoracen vere odol preciosismoaren precioa, ezaucen zue perfectamente cein andia cen aren merecimenduen virtutea eta valorea, eta orrequi gucie-requi dio gure Salvadoreac gucioc galduco gadela (sic) ezpadugu eguiten

penitencie: *omnes* guciec, ala Erreguea nola basalloa, ala Nausia nola mutille; *omnes*; ala damaric delicatuena eta noblena, nola andreric zafioena (encima: malderrena); ala Echeco Andrea nola sucaldeconescatoa, *Omnes*; ala sabioa nola ignorantea, Caballeroa nola Mercataria, gastea nola zarra, Apeza nola erreligiosa, guciec iz bates pricituco zadate ezpaduce eguiten penitencie. *Nisi penitentiam egeritis, omnes similiter peribitis*. Aurrera proseguiuzeco etc. escazagun gracie erratendugularic AVE MARIA.

*Venit Ioannes predicans* etc. Bar<sup>a</sup> Serms. 7.

Us andie eguitendu vecatariec ustean pasacera vere vici gucie proposi-toetan, abraric gave (sic). Icusí duzu, Catolicoa, zain necesarioa den zure culpen penitencie, eta eztagola verce medioric vecatu eguinduenarendaco, nay badu salvatu. Erranzadazu oray: Nauzu zuc inventatu dezan Jangoicoac zuretaco verce medioat igoceco cerura? Nauzu ideguidezan verce videbat verria zu salbaceco? Ez, cergatic Christioa zada (sic), eta badaquizu eztago-la verce videric. Cer nauzu bada? Percitu eta condenatu seculaco? Eztare; bada baliezala arracioec; eztago medioric icusiduzun vezala. Edo confesatu vearduzu verguenzas edo alques uciduzun vecatu ori, edo juan vearduzu confesacera Luciferrengana infernura edo errestituitu vearduzu dezaquezu-laric edo condenatu; edo apartatu vearduzu vecatuaren ocasiotic edo izan demonioaren esclavo eternoa; edo barcatu veardiozu vioces agravia // zai-tuenari edo erre bear duzu (sic) infernuen eternidadebates. Gauza fuertea! Eztago verce medioric? Desengañatuzait (sic) eztagola. Icusazu bada oray: extremo evetatic zain elegizenduzu? Nic elegizendut. errainduzu, confesa-cea, errestituicea, apartacea ocasiotic, eta barcacea, baña ez oreño. Noyz ba-da? Gero. O Geroa (sic), eta cembat anima dauzquizu infernuetan! Gero ori da infelicidade gucien semilla. Orrela erratezue Sn. Agustíñec; baña nola eguitenzue guero negar descuido ontas! *Differens dicebam modo, ecce modo, sine paululum; sed modo et modo non habebat modum*. Senticen ci-tue Sando onec vere viocean Jangoicuec ematencizquion aldavadac, atera-zaien vere errore eta culpetatic. Eguitenciate fuerza inspiracio verdadero ayek, eta ez atrevituric erratera ezez errespondacencio Jangoicueri guero convertitucocela, uzi cezola guchibat vere vecatuetan: *sine paululum*. Bañe ezautuzuean vere errorea, erranzue, guero izan veard balinbadu, cergati ez bereala? Verala Convertituce.

Icusazu zure experiencie propioas cer use eguitenduzun dilataceas edo luceceas ainverce importacenduena. Erranzadazu vecatarie, galdeiteinzu Sn. Agustíñec: Sartu baledi emen Eliza ontan Arguin Maisuet, sar baledi Aingue-ruet, eta erran balez (sic): Jaunac, aterabeice pronto, cergatic eliza onec amenazacendu ruina, erorcera duei (sic), esperatuco cinduque gueroce ate-razera? descuidatuco ciñaque? ez por cierto; cein pronto moguituco ciña-que! cein chiqui izaiñ lizaque Atariori guciec golpe bates ateraceco! Bada

TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

veguirezazu, eguie eternoac avisacen errateinzu, zure corpuzaren eche terrano ori erorcera dueiela prisacan, eta guelditucodela enterraturic obi batean: cer ari zada (sic) bada gueldiric nay izan bague atera culpatic amenazacen diolaric zure anima orri ruina edo perdicio eternoa? Erranzadazu deshonestoa noiz uzi bearduzu amistade profano ori eta costumbretorpe ori? Guero. Eta chispa edo brasarenbat saltacen baceizu escuen gañera noiz egozico duzu? Bereala. Noiz restituituco duzu gaizqui adquirituric dauquezun hacienda ori? Guero. Eta noiz ateraco duzu escuen sarcen zaizun erreren bat? Vereala. Noiz barcatu veardiozu eta minzatu veardiozu // zu ofenditu zaituen persona orri? Guero. Eta noiz daitucoduzu Medicoa punta de costado atec ematen baizu? Vereala, naiz dela gau erdicoan. O, vecatarien isutasuna, ceguedadea eta desdicha! Cein da peligro andiagoo? adizazu guelditu zaizen (sic) convencituric zaure experientzi propioarequi.

Carrican zuacelaric emanbalezazute puñaladarembat edo eridarembat mortalea, alborotatuco cinduca barrede gucie oius confesio escacen; eta egonican zure anima ori erituric vecatuerequi, naiduzu uzi confesioa gueroco? Adizazquizu bada zure viozac herituric heride mortalarequi vacatuen medios, emateizquizun clamoreac; adizazu nola escacen duen confesio; nola bada errespondacen diozu borondatearequi guero cofesatuco zadela (sic)? Estituzu senticen concieniec emateinzquizun aldabadac? Bada desengañatu ceit (sic) ezpadiezu atendizen, imposible izainda sosegacea.

Ea Católica: Noiz arteo lucecenduzu zure conversio eta penitencie ori? noiz arteo iraun veardu vizizaden estado miserable orrec? Orrela galdeiten- cio vere burueri Sn. Agustíñec: *Quandiu! quandiu!* Noiz artio (sic), Agustín, noiz artio izan bearduzu descortesa Jangoico verarequi icusiric daicen zaituela? Noiz artio izan bearduzu errebeldea arren misericordie infinitoetara? Eta, nola arren vorondatea baycego gaizqui acostumbraturic, errespondacenzu: *cras, cras*, zuc errespondacenduzun vecala: viar, viar izulco naiz Jangoicungana. Bañe adizazu nola erreplacacion Agustíñec vere vurueri: *Et quare non modo? quare non hac hora finis turpitudinis meae?* Hizan vear balinbadu ene conversioa urterenbates, cergatic eztu izan bear aurten? hizuli vear balinbadut Jangoicungana egunen bates, cergatic eztu izan bear egun? *Quare non modo?* Eta izan bear balinbadu ordurenbates, cergatic ez oray nagon hordu ontan? *Quare non hac hora?* Badago arrazioric ontaco, Catolicoa? ez zu arquitu veinct Sn. Agustíñec. Nola dagoque arrazioric, izanican zure anime zeruetaco Errege aren esposa, izaniquen (sic) zeruetaco Jaunaren esclava // non dago arrazioric esperatu arasteco Atarien zure Esposo eta zure Nausieri, edegui nai bague verce egun bateraño? Badago arrazioric ontaco? eta badago arrazionik egonican ya infernuco Atarietan zure vecatuec dirala medio eta ofrecicein zularic Jangoicuec escua ateraceco eta libraceco, errespondatu dezozun eztuzula nay verce egunbaterañoo? eror

bazindaiz buzuetea, eta allegatu baledi norbait an, eta luzatu balez escue lagun eguitero ateracen, errain cindioque: Uzanazu emen, viar ateraco nauzu? Ez por cierto. Eta salvacioa duaquizon gaucetan ivilli vearduzu erroye bezala erraten: *Cras, cras, viar viar?*

Catolicoa, vecatu mortalean zaudena: ezta burlesco negocioa, salvaceco negocio au: *Ne diferas de die in diem* errateinzu Espiritu Sanduek: Ez gaviçela luzezen egun batetic verçera. Egun vici zada (sic), egun ofreciceizu (sic) Jangoicoac barçacioa arrepinticen bazada. Baña ez dizu ofrecitu viar ori arrepinticeco, erratendu Sn. Agustinec: *Diem crastinum non promisit*. Cein ongui minzacenda assumpto ontara Erregue Profeta David: «*Quemadmodum* etc.; minzacendelariç Jangoicoarequi, erratendio: «Oreña juatenden vecala prisacan iturriec villecera egarrie duenean, ala, Jauna, juaten da ene anima zure villen. Eta cer prisa eramatendu Oreñec? Adizoze Sn. Epifaniori: Du oreñec propiedadebat: juaten da, serpientec, suge eta verce sabandije veneno-soac villara, eta sarturic balibadaude veren cuebetan, atra arazteintu asarequi eta jateintu eta asecendenean vianda pernicioso onequi, egarriac itoric juatenda alduen prise guciarequi ura villara. Balgate Dios. Oreña: certaco ainverce prisa? esque vicia duaquio ontan. Baldiñetan iru orduren demburuen ezpadu opacen uric, ilcenda erremedioric bague velenoaren violenciarequi. Nola bada estu (sic) laster eguin bear eta juan prisacan ain denbora guchi gueldicen // bazaio viciçeco ezpadu edaten? Orgatic dio Davidec, laster eguiten duela oreñec vezala, cergatic eztu arquicen iru orduric ere egosteco vere animatic vere culpen venenoa, eta veldurce arrapetuco zuela eriozeac vecatuen cegolaric.

Oray bada, becatarie, venenos beteric zaudena, zure vecatuen medios badauzquizu iru ordu seguro? Ez, eztauzquizu. *Diem crastinum non promisit*. Nola bada eztuzu laster eguiten penitencieren ur cristalinoetara? Ay zure galdue, faltacen bazaizu viarco egune! Ay zure galdue, faltacen bazaizquizu zuc uste (?) imaginaceintuzun ordu oyeç viciçeco! Eztidazu erranen certan fundacenden engañu comun au ceñequi persuadicenzada aniz urtes vici vearduzule? Eztago certan fundatu, baicic ezcutu engañue dela. Eta engañueteric fiacenzada, viciçeco vecatu mortalean? Eztaiteque gertatu faltatu dauquizon viarco egune, verce aniceri faltatu deiquioten vezala? Ya se ve guertatu daiçuela. Eta faltacen bazaizu, cer guertatuko da? Gueldicea condenaturic, egoteco errecen su eta garrean eternidade bates. A fielac, acabatu bazenzate entendatus cer peligroan arquicen zadata. Adizoze erraten Espiritu Sandueri: *Subito enim veniet ira illius*. Erratendu bada: eztezazula lucetu egunetic egunera izulzea Jangoicuen gana, vear eta necesarioa den penitencierequi, cergatic verçela derrepente *subito* etorcoda Jangoicoan castigoa zure gañera, eta usten (sic) baduzu viarco zure conversioa izan daiteque egun ciertoa zure condenacioa. Errefericendu Plutarcoc conjuracidalà (sic) guizon

TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

enemigoazuec eta tratatuzutela veren artean ill veartzutela guizon poderosoat Archias zaizona. Jaquinduzue guizon poderoso onen adisquidebatec conjuracioau, eta escriptucio, ematenciolari avisu, escapaceco edo paraceco salboan; eta carta eramazuan propioari errancio: Tori cartau, eta non arquizen-duzun sujetoa, an verean emanzozu eta erranzozu vereala leitu dezala, cergatic da impor- // -taciosco negocioat: *Quia seria continet*. Arquituzu propioac diverticen convite batean, emancio carta, eta sartuzue leitu bague bolsilloan. Jaune, errancio propioac, leibez vereala carta ori, cergatic or eldude inportaciosco negocioat. Orgatic veragatic guardazeunt viarco, cergatic importaciosco negocioec egin veardira dispuciorequi. Eta cer guertatuquequo? Arras artan verean emanciote erioze desastratuet conjuratu zidan guizon aiec. Vecatarie, au aditzen zaudena: Jangoicuen ordenarequi eldu naiz zu avisacera condenacioco estadoan arquitzen zadela eta conjuraturic daudela zure contra Mundua, demonioa eta aragueie eta eztauquezula ordu seguro-ric. Espiritu Sanduen carta ecarri dizuden onec contencieintu negocio importacioscoac: *Seria continet*. Vicice seculacoa, ez gutiago. Leizazu bada eta executezazu errateinzuna: *Ne diferas* etc. Eztezazula dilatatu edo luzatu gozazea zure apetito eta interes oien convite ortatic. Asqui da orai artio ofenditu duzuna Jangoicue. Paratu ceit salvoan, cergatic eztauquezu ordu seguro-ric. *Ne diferas*. Cer diozu? Verzeac vezala, viar leytuco duzula? Viar convertituzozadala? Bada esperatu dezaquezu zure perdicioa egun.

O, valgame Dios! Eta cembat, orei gauden garai ontan, arquicendire infernuetan luce zutengatik veren conversioa verce egun bateraño. Imaginatu otezekiote orrelatoric gertatuco cequioela? Ez, fielac: Ustezute verce anizec pensacenduten vezala izain zutela denbora penitencie eguiteco, eta arquitu zidan burlaturic, demboraric bague, emendatu bague veren vicio eta vetico condenaturic. Bada esperatu dezaquezu lomismo: suceditucequiote arequi eta suceditudizakezu zuri. //

Adizazu exemplo au ceñequi confirmacenda erranduden gucie. Madridgo hospitale generalean arquicence gaizqui guizonbat ceñec vere vici gucie gastatuzue vicio eta costumbre gaiztoetan. Apreatuzue enfermedeac allegatu artean ya azquen tranceraño. Persuaditu ciote aniz aldis confesatuzaicela, ilceco Christioa vezala, bañe beti escusacenze erratenequi urruillegui zaudela verce enfermoen guaceac eta adituco zutela arren confesioa; baña eze au arren motivo verdadera ez confesaceco, baizic urrutisco cego arren arrepenitentie eta bere culpec zauquite encadenaturic ez aterazeco vecatuetatic. Instacenciote de nuebo, eta arc veti escusatu guero izain zela (borroso...). Gau bates faltatuce guizon au guacetic iñorc icusi bague, eta gartic erran bague. Gau ontan verian allegatu zida Sn. Franciscon Conventura bi guizon daizera confesorebat peligro andian cegon enfermoatendaco. Guardianoac manatu zio (?) (borroso) necesidad ura Fraile virtuoso ati eta

predicazale andibati. Aterace Conventutic vere lagunerequi eta mesagero ayec aurretic guiatu cituste carricas carrica, pasatu artean Villa gucia. Ellegatucida Alcalaco portalera, eta icusiric campora nai zutela eramán, veldurtuce confesorea traicioirembat naibideciotela eguin, cergatic predicacenzue ainverce libertaderequi vicioen contra, ecce, (sic) vicioetan sarturic zaudenac ez zaude sobra content; conque errancioté ez zela treve aurrera pasacera. Jauna, erran ciote, vetor gurequi veldurric gabe, emen verla (sic) dago enfermoa eta necesidade andie dauque, cergatic dudaric bague egun arratsean illen da.

Au adituzuenean, encomendacen celaric Jangoicueri, erresolvituce juatera; ellegatu zida ugalde vasterrera eta arbola bazuen azpien opatuzate enfermoa eta errancioté guiecen zuten ayec: Ona non dauqui jauna en- // -fermoa, exortatu beza alduen eficacie guciarequi confesatu dayela, bada egonduda gogor confesaceco. Apartatucida andic Mensagero ayec eta asice confesora exortacen, baña ain gogorturic cego ece ez zute eguin arren baiten confesorearen arracioac mellaric bateré. Trabajatuzue confesoreac vere aleguin gucierequi, baña errespondacencio: Uzibezada, Ayte, ez nazala cansatu. Ontan ellegatu cida mensagero ayec eta errancioté confesoreari: Ayte, icusivez inolaco guisas albadu convertitu eta confesatu guizon au, cergatic bercela emen geude legionebat Demonio infernure eramateco; guc ekarriguindue Hospitalic onara, cergatic an ez zue nai confesatu, eta justificaceco ovequieco (sic) onen causa, manatu gaitu Jangoicuec ecarzagula soledade ontara eztezan escusaric atra (sic) norbaitec aituco duela onen confesioa; eta au erratearequi apartatu cida verris, orduen asice esforza andiagorequi exortacen, baña egonican desdichatu arrequi espacio andien fruituric atera bague arrimatu zida Demonioac eta, corputz (sic) eta arimen, eramezute infernure, egoteco erreccen secula verevicien vere excusa eyen castigotan.

O Catolicoak! icusten duce zertara ellegacenden animabat luceceangatic egun batetic vercera confesioa eta converticea? Determinatu zait bada ez egoter (sic) orduetes ere vecatuen, bada posible da ez ellegacea viarco egunera: *Ne diferas de die in diem*. Nauzu ez ellegatu enfermo ure ellegatucen desdichara? O ciein facil de naibalinbaduzu! Erran zadazu: Ill balaquizu Anaia bat aniz estimacen duzuna eta albacenzaque erresucitetu acto contricioscoatequi, esperatuco zinducque verce egunbateraño erresucitaceco? Balcindaude infernuen, merccitu duzun vezala aniz aldís, eta (esten vezala) posible baliz ateracea tormentu avetaric, arrepticerequi solo (?) uzico cinducque gueroco? Idurizaide ez ez. Bada catoli- // -coa † Jaun Divino onen misericordiec ematen dizu facultade acto contricioscoarequi erresucitaceco zure anime illic balinbado (sic) vecatuerequi; arrepticerequi emateinzu licencie ateraceco infernue baño estado gaiztoagotic vaite (sic) vacatuena. Eztezazule galdu ocasioau; ellegatuceit bada oin sagratu evetara eta sentimendu andibatequi erranzozu: Jesuchristo nere Jaune etc.

III

*Erunt signa in sole et luna et stellis et in terra.* Luc. 21.

Asi bainalen Evangelio Sanduac explicacen, naidiotet advertitu ece ala nola christoren Magestadeac munduontan vicicelatic, errancioten vere discipuloeri, gauza pertenecienteac fedeari eta costumbregui (sic), ala errantedigu (sic) egungo egunean guri, cergatic baigada christioac eta Christoren Magestadearen discipuloac; ala eracustendigu doctrina sanduac, demboraartan erranciate Christoren Magestadeac vere discipuloegui, eta egun erraten digu guri ece iaqueta etorri vearduen Christoren Magestadea, munduen Juzguecera, Juicio Universaleco egunean, preceditu beardute señale formidablebazuec iguzquian Yzarretan: Yllarguian eta lurrán, bada lurrán egonendire gendean (sic) locaturin (sic) cergatic alteratucoda Ysasoá amberce gradotan ece gende gucién (sic) egonen dire veldurturic, eta esperacen gucién finde mundua, moguiduco dire virtute ceruco guciac, eta horduan icusico dute nube batean eldudela Christo juzgacera potestade eta Magestade andivatequi, eta bada cetara cergatic preceditubear duten señale formidableabec, bada dio San Gregorioc, ece egorricodituela Jangoicuac preparatu gaicen Juiciora, eta apartatuzagun gauren (?) vioza gauece temporale gicietatic, eta iaque eztugun iduqui veldurric Jangoicoari, baquean iduquidugunean, siquiera iduqui dezugun veldur arquicengadenean urbil Jaun terrible artara. O eta nola arquiteuco dire vecatariec icusicendutenean señale formidable au eta icusicendutenean dagola Jangoicoa aniz ofendituric vecataries, bada verén vecatuen (sic) icendire fiscale Juicioco egunean, verac condenaceco; eta nola arquiteuco direvecatari miserable aiec icusicenditenean (?) eldudela Christo potestade eta Magestade andivatequi, eta cetara (?) etorriren da, solo juzguecera mundu gucie eta ematera // baperari segun meraciduten vere obrac, cetara sol (borrado) minecera gueiegui beren concicién (sic) eta manifestacera gaiztoegui verén delitoac, eta ematera verén delito equi aurteguién, eta publikecera eta revelacera gende gucierí eta mundu gucierí vecatari miserablen delituac, an arquiteudeicen confundituric, yaque munduontan ezuten nai manifestatu confesore bategui verén onetan. O cein confundituric arquiteuco da Juicioco egunean mundu ontan cilducituénan (sic) vere vacatuec verguenzas, bada admirecen naiz ece dagoquela munduan persona ain juicio gutitacoric ece cildudizatela vecatuec confesore vategui jaquinín (sic) ezín errandezaquila dausere, eta delo contrario publicuetu veardidila juicioco egunean mundu gucién aurrean. Bada consideratubezate ece obedela confesacea munduontan verén fragilidadean (sic) confesore prudente bategui, ece berce munduen publicuetu daicela mundu gucién aurrean, bada naz (sic) padute confesatu verén vacatuec, verén vacatuec clamatuco



dute eta escatuco dute Jangoicoari Juicioco egunean venganza venren (sic) contra; eta por sacaso arquicenbarimeda nere auditoriuen personarenbat sil-  
duduena vecaturenbat alques edo malicies, disponitudaïen confesio onbat  
aguiteco esplicatuco ditut lacio (?) igendeabetan (sic) cer gauce diren ne-  
cesario confesio on bat equiteco, ceïn diren lauec.

Lendabicoa da examinecea conciençie, bada examicea (sic) concien-  
cie ezta verceric solo pensacea eta discuticea edo memoriera ecarricea vecatu  
cometitu dituen gucien (sic) azqueneco confesionetic presentecoraño; eta  
nola pensatu bearda edo discurritu? atenciorequi eta despaciorequi; eztago  
dembora determineturiquen cenbat dembora gastatu bear den examin con-  
ciencie eguiten, cergatic persobazuec veardute devora (sic) gueiago verce  
bazuec baño, segun // duen capacidade eta segun cenbat dembora duen con-  
fesatu cela, cergatic dembora gueiago bear du confesacendenac urteti urte-  
ra, ece confesacendenac ylletic illera; paratuvearda bada diligencie eta cui-  
dado andivet examine conciençie eguitean, ala nola guizon prudente batec  
paratuco eitzuzquen diligenciec negocio andibetean, discurricen eta pensacen  
duelatic cer negocio eta trato iduqui duen, cer compañierequi ibilliden,  
discurricenduelatic despacio cer ofensa, dela pensamentus, ices obras  
edo deseos cometitudituen Jangoicoeren contra; ala nola personabatec  
galcen duenean diru porcionebat, cer diligencie eguitendu, asicenda disc-  
rricen non zauquen diru ori, eta noiz eta emanzenetiquen quartu (sic)  
faltazuela dirura (?), izulicen da ibillicera lenago ibilizituen pausu guciec  
ariqueta billituarteño vere dirue; ala bada eguin bear da examine concien-  
cie, discurricendutela cer pausu ibili dituten, cer trato eta contrato iduqui  
duten, etacer compañierequi ibilididen; bada gauce temporale batean para-  
cenbarimedute omberce cuidado, eta omberce diligencie, cer negocio andiogo  
arquitudeique, animen salbacioa baño, eta ala procuretubezate Jangoicoaren  
amorios paracea diligencie eta cuidado andivet examine conciençie eguitean.  
Eta segun examinencendituzten confesatu, ciertoac ciertoac bezela eta dudosoac  
dudosoac bezala; eta aurrera prosequiceco, escazagun gracie Maria Santissi-  
meri erraten dugularic AVE MARIA. //

*Erunt signa in sole et luna etc.*

Ala nola den fedeco gauza gucioc ill beardugula Sn Pabloc intimecen  
digun vecela, ala da fedeco gauza gucioc erresucitetuveardugula Juicioco egu-  
nean; au eztaquigu noiz izanen den cergatic ala dauque ordenaturic Jaun So-  
beranoarrec bere sabidurie andierequi aniz motiborengatic, eta principalena  
da virduronequi (sic) gauden veti eta instantero preveniruric emateco con-  
tu Jangoicoari gure obra gucies eta ezaun (sic) lucetu comberticea eta peni-  
tencie eguitea; vigarren motiboa da cergatic valiquite (sic) gendec noiz  
izanbearluquen Juicioco eguna iorquere ezluque casoric eguinen aungui (sic)  
vizias eta ez serviceaz Jangoico Soberanoa.



TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

Eta alare icusten dugu egungo egunean Christio geienan daoizquiela (sic) aiiñ engañaturic Demonioac eta veren amorio propioac ece apenas ar- quicenda iorere naiz dela zarrago edo naiz dagola gaiz quiago, ezpaitu pen- sacen vicitubearduela aniz denvoras, eta emendi segaicenda lucecea peniten- cie eguitea obra onac eta eguitea errestitucioa honrarena eta haciendarena illeti illera eta urte bateti vercera, eta guisa ontan arrapacen ditu erioceac derrepente emanbague demboraric disponiceco eta justifiquececo veren ani- men gauzen eta ala izatenda aien eriocea nola izancen aien vicie. O desgracie manifiesto. Bañe ezparimedaquigu ere noiz izanen den Juicio finalen egu- nori, erraten digu egungo Evangelioac manifestatuco duela Jangoicoac lena- gotic señale formidable vazuqui; eta dio San Alvertoc ece guero juntetu (sic) direla munduco su guciec eta isaico (sic) zaiola mundu gucieri // lau alde- tatiainverce indarrequi ece dembora gutiz gueldituco dide aus viurturic mun- duco Palacio ta Edificio guciec.

Abrasaturic bada mundua guisontan sonatuco du Sn Miguel Aingue ruac trompeta formidablebat daicen dituela difunto guciec Josafatgo Vallera eta erraten diote *Surgite mortui, venite ad iudicium*, gorazaizte illic zaude- tenoc eta zatozte juzgaturic izatera, eta ala atracodire ceruco eta infernuco anime guciec eta juanen dira veren corpuzac arcera enterraturic izan ciden lecura. Bai nere catolicoac, gucioc erresucitetubeardugu, baña ez guciec gui- sabatean; obra onetan empleatucidan anima aiec erresucitetuodire ermosure andivetequi, eta topatuco dituste veren corpuzac Yguzquia baño ederrago, eta sartuco dira an contentu eta alegrie andivetequi. Baña al contrario anime condenatu aiec topatucodituste veren corpuzac ciquinqueriez veteric eta co- rrompituric, eta sartuco dira an tristeza andivetequi. O desgracie! bazui glorie gueiagotaco; eta vercebazui tormentu gueiagotaco. Erresucitetu ondo- an Juicioa (?) Juan veardugu Josafatgo Vallera; onac juanen dira Angue- ruen compañian, eta gaiztoac eramoco dituste Deomioac cadenas arrastratu- ric eta guciec juntetu ondoan icusico dute eldudela Jesu Christo gure Jaune Anguero anizen eta vere Ama Santissimaren compañien, cein (encima: «nor») egon (sic) baita escubietaco aldean; Jesu Christo gure Jauna egonenda au- rregui serioatequi goitico aldean vere trono magestuosoatean; veitico aldean egonen da infernua ideguiric eta Demonioac esperacen noiz izanen diren condenatuec vacatariec emateco tormentu destinatu aiequi. // Baperan cul- pac, bada, nere Catolicoac, izanen dire fiscale eta acusadore, eta ontaco ide- guico dire concien (sic) librucc, San Antonio de Paduac arratendigun ve- ceta (sic): «*Judicium sedit, et libri aperti sunt* liburu aietan icusico dira cla- ramente vecatu grave eta leve cometitu didanac; an arquituco dire gure iz, obra eta pensamentu guciec, eta cer intenciorequi eguin ditugun guciec guciec, nere catolicoac, manifestatuco dire an gure viocean pasatu diren gauceri- quen ocultuenac, dio Sn Pabloc manifestatuco dirala eta publiquetuco egun artan mundu gucieri. Examinatu ondoan causa guciec eta compondu ezque-

rostick procesoa, pronuncietucodu sentencie eta onegui erranendiate izulcendula vere aurteguie Juez Soberanoarrec venignidade andivetequi: *Venite benedicti Patris mei*: zatoste (sic) nere Aitaren hume bedicatuac eta gozazace ceruco Gloria cendaco prevenituric dagona; zatoste nere Viozeco hume maiteac Patria Celestiale ontara noraco izan baiziñate sortuac, zatoste nere Ama Santissimaren compañaia. O cer noticie, eta cer sentencie alegries vetea; baña cein contrario izanen da condenatu miserableaien sentencie formidableori erraten diotelaric Juez Soberano arrec: *Ite, maledicti, in ignem eternum*: zuaste madariqueatuec niereganic infernure, cendaco eta Demoniorendaco baitagoe preparaturic, zuaste eternamente su eta Garretara egotera Demonioen compañaen egotera (sic); ezindute nai nere Vedicioa, zuaste nere maldicioarequi Calabozo infernale aietara (Sentimientos del tiempo perdido).

Juicio terrible au izanen da gero, nere Catolicoac; bañe oraidanic icenbeardugu veldur, eta refrenatu bearditugu gauren pasione eta costumbre gaisto guciec naibarimedugu conseguitu sentencie favorableori, eta de lo contrario, munduontan ultrajacen barimedugu // Jaun Soberanoa ceñec juzgatubeargueitu cer sentencie esperatu dezaquegu? Bada, nere catolicoac, iriqui, dezazquigun veguiec eta berisazagun (?) ece acaso gaur izanendela azquen eguna eta deitucegaituela guicio (sic) particularrera; vaia bada nere catolicoac botatu dezazquigun gaureganic costumbre gaisto guciec, botadu dezazquigun odio eta errencore guciec, botatu dezazquigun eta evitatu dezazquigun murmuracio eta maldicio guciec eta ultimadamente evitatu dezazquigun gauren pasione eta costumbre gaisto guziec naibarimadugu conseguitu sentencie favorablea eta aunque orei arteño vicitu barimagada desagradecituric Jaun Soberano arri, eta oreitu begue Juicioa, egunas (?) ofrecituzogun serbizera emendic aurrera amorio andi vetequi eta fidelidade andivetequi eta escatu dezagun vioz gucies gure vecatues misericordie, bara dauque empeneturic ize edocein vacataric escacen dionac vioz guciz misericordie baracatuco (sic) dizquiola eta ala confianza andivetequi eta vioz guciez.

Bada orai esaten baliquetezu ece Eliza ontan publiquetubear didela.

Vecatue comiteca da Jangoicue ofendicea; bañe vecatue confesacea da Jangoicue glorificacea eta honracea, dio S. Judas Tadeoc. //

#### IV

«Año de 91». — *Anno quinto decimo imperii Tiberii Cezaris* etc. Luc. cap. 5.

Egungo Evangelioan erratendigu San Lucasec, ece San Juan Bautista Gloriosoa cegola desiertoan predicacen penitencie Ebreogui (sic); eta nic,

arren imitaciotan, nai nuque egungo egunean predicatu penitencie Christio fielogui; desiertoa (sic) predicacenzuena San Juanec, erraten dute cenbei Espositorec cela reiñu Judeacoa; baña San Gregorioc erraten du ece desiertoa entendacendela vecatari guciec desamparaturic Jangoicuaren ganic; desierto oni eta vecatari desamparatu oni nainuque nic prediquetu eta eman ezaucera cer estado infelicen arquicenden; bada, ezautu balezaque vecatariec cer estado infelicen arquicenden, villatuco luque al instante remediue, bada erratendu Senecac ece ezaumentue vecatuererena (sic) dela principioa erremedioarena: *Inicium salutis, peccati cognitio*; eta predicaceco claridadearequi advertitu eta jaquinbearduce ece Jangoicue eztela apartacen animetic eta eztuela desamparacen, ariqueta vecatarie apartatu deien Jangoicuaren ganic vere vecatueren medios, entregacendela deleitera, gustara eta interesara, ece au de vecatu eguitea: *Aversio a Deo et conversio ad creaturam*, erratendu Santo Thomas de Aquinoc, eta personabatec cometecen (encima: «eguiten») duenean vecatu mortalerembat, al instante galcendu gracia divina, meritoa obra onena, derecho zauquena Gloriara, eta gueilcenda (sic) desamparaturic eta aborrecituric Jangoicuerenganic eta arren corte celestialarenganic, eta eguiñic esclavo vil demonioarena eta condenaturic padecicera eternamente Ynfernucio pena aietan demonioaren companien, ezparimadute eguiten penitencie.

Dañu auetara eta pena avetara gucietara sugetacenda eta condenacenda anime vecatumortale cometecen (encima: «eguiten») duen aldiero; au gucieda ponderaceco, bañe principalena da gueldicea anime desamparaturic Jangoicueren ganic. // Aude bada desdiche eta desgracieric andiena, anima (sic) Jangoicue bague eta desamparaturic Jangoicueren escutic; ai miserableac, erratendigu Jangoicuec verac (sic) ni apartacennaicenean cetartic (?) ai miserablea! eta Jangoicue apartacen barimada gureganic, da cergatic gu apartacengada lendavici Jangoicueganic vecatu mortala dela medios; erratendu bada verac: *Ve eis quoniam recesserunt a me*; bada padecicea infernucio tormentu guciec junto, ezta igualaceco desgracioni; gutiago sentitucoluque anima egotea padecicen infernucio tormentu guciec ece egotea desamparaturic Jangoicuerenganic eta egotea vecatu mortalean (erranendu San Anselmoc), eta ezaucenda claramente, cergatic condenatuec senticenduten penaric andiena da carecicea edo ez icustea secula Jangoicueren aurteguie (juanden Igandean erranuen becela) bada condenatuendaco ezparimedago pena andiagoric ece carecicea eta egotea privaturic Jangoicueren aurteguie icusteas, peccatariendaco estago desdiche eta desgracie andiagoric ece egotea desamparaturic Jangoicueren ganic.

Arquicence saul combatituric eta atormentaturic demonioenganic eta desconsolaturic eta veteric desgracies; eta nondic etorri cequio Sauli ainberce desdiche eta desgracie? erratendu texto Sagratuec, cergatic Jangoicuec uzizu

(sic) eta desamparaturic: *Spiritus autem Domini recessit a Saul*; apartatuze eta desamparatu zue Jangoicuec Saul; bada Jangoicue apartacen bada Saul-enganic, norc ocupatuveardu? solo demoniuec; eta, vecatari miserablea, Jangoicuec ucicenbaceitu eta desamparatu eta ausentacen barimeda zure animetic, norc ocupetuveardu? solo demonioac; eta estado miserableortan nola aterabeadaquio (sic) aungui negocioric? O Jangoicue! eta cemba garic (?) experimentacendu vecatari miserableac // apartacendenean Zureganic? erranzadazu, Christioa; eztaquizu ece Jangoicue apartatucela Zureganic Zuc ofenditu cinduenean (sic) Jangoicue? erranzadazu, eztaquizu ece zuc cometitu cinduenean (encima: «eguiten») juramentu falsori eta zuc dauquezun odio perversorequi zure proximo lagunen contra, eta zure envidie malvatuorrequi, eta zure torpeza infameorrequi ofenditucenduela Jangoicue eta apartatucela zureganic eta zure arimeti? bai badaquizu, cergatic zadan Christioa aunque gaiztoa, bada erranbear duzu Saulec vecela: *Deus recessit a me*; Jangoicue apartatuze nereganic vecatu eguinuenean; bada ori badaquizu eta ezaucenduzu, eta cergatic eztuzu eguiten penitencie? (Doctrina: *operis satisfatio*).

Egun nere Catolicoac predicacendigu San Juanec eguin dezagula penitencie eta au izandaiela fructuosoa conseguiceco gracie eta Glorie, eta perseverazagule penitencie ontan, bada solo perseveracenduenac (sic) azquen fiñeraño salvatucoda erratendigu San Mateoc: *Qui perseveraverit usque in finem, hic salvus erit*; perseverancie da virtutebat ain necesarioa ece ure bague iorc ezaque icusi Jangoicue erraten du San Bernardoc; guti valio du asicea jornada bat, ezparimeda prosequicen; guti importacendu prometitu dezaten campoac maiecean cosecha andibat, guero galcen barimedire engranatu baño len; bada guti importacendu personabat asidaien aungui, ezparimedu prosequicen eta perseveracen azquenereno faltacenbada perseverancie condenatuco da anime ala nola suceditu cequioten Sauli eta Judesi; ece asizute ongui beren vicie, eta acabatuzute geizqui, cergatic ezutemperseveratu; perseverancie bada nere catolicoac! eta porseacaso barimezauste gaizqui zuren concienzien, // confesaceiste aungui proposito eta resolvimentu firme batequi eta garbizace zauren anime eta conservazace garbitasunarrequi manchatu bague culpequi. Bañe por ventura executecenduce orela (sic), procurecenduce garvicea zuen (sic) anime confesacen zatatenean, eta conservacen guero garvitasunarrequi? O cer dolorea eta cer desdiche! bada negar eguin bearguenduque odolasco lagrimequi; bai nere Catolicoac sinistetubear duce ece Christio fiel gueienac estitustia (sic) garvicen veren animac veren confesio ordinarioetan eta garvicen barimedituste, perseveracendute dembora gutiz eta orgatic condenacendire amberce, bazuc cergatic eztituste erraten confesoreari veren vecatu guciec, cilcen dituztelaric vecatu gravenac, edo gutitucendutelaric numeroa edo vacatuen gravedadea; bercebazuc, aunque confesacenbarimedituste, confesacendituste doloreriquen ba-

gue edo propositoringuenbague (sic) eta orgatic izulicendire facilidade an-divetequi vecatu eguitera.

Eta au sucedicendaquiote por lo comun, amancebaturic daudenegui, embriagacendirenegui, eta odio eta errencore dauquetenegui bada etorrico dire avec (sic) confesacera, eta confesatuco dituste beren fragilidadaeac, eta confesatu eta al instante edorico dire confesatu ditusten vecatuaietara; eta cer señale da au? ece ezauquetela doloreric eta propositoric eta guisa ontan proseguicendute, veren concienec egin arteño calloec eta guero confesio onbat eguiteco bear dute, aniz ausilio emandezoten Jangoicuec, cergatic gogorcendaquiote vioza broncea maño gueiago; eta esperacenbarimedute eguiteco confesio on bat azkenordure erratendu San Vicente Ferrerrec ece guti converticendela lanceartan Jangoicuerengana eta eguin penitencie verdaderoa: *In morte raro aut vix potest quis bene penitere. //*

O, Jangoicuec ezala permititu suceditudaquiola ainberce gaiz nere auditorioan daudenegui, bada nai barimeduzucez experimentatu ainverce desgracie, eguindezace penitencie; nere catolicoac, penitenciec eguin ditu vecatari andivazuc Sandu andiec izan daicen vecatarie eta andie izance David, vecatarie eta andie izance Sta. Maria Magdalena, eta penitencierequi borratu citusten veren vecatuec.

Artuzagun bada nere Catolicoac (sic) Isaias Profetac ematen digun consejua, eta confesazazquigun gure vecatu eta fragilidada guciac gure confesoregui (sic) dolore eta resolvimentu firmearequi ez gueiao (sic), vecaturic eguiteco eta perseveraceco Jangoicuaren servicioan: *Ore autem confesio fit ad salutem* esaten (sic) du Ysaias Profetac, bada confesio onbaten medios conseguicenda vecatu guciac barcacioa eta ateracenda demonioaren esclavidetic munduen arquicenden vecatariric en (sic) andiena barimeda ere, eta ontaco adizace exemplo au ceneñequi (sic) acabacendut:

Contacendu Venerable Gazpar Sanchez misionero Apostolico batec, ece Andaluziaco Ciudade batean arquicencela emacume bat guciz noblea eta ederra eta virtute andibatecoa eta confesacencela zorci egunetic zorci egu-nera vere amarequi batio confesore docto eta virtuosobatequi; aficionatuce emakumeartas Caballero Noblebat, ceñec eguincitu diligencie alciutenac trataceco eta erregalaceco emacumearri; baña ezu conseguitu, cergatic ze andie emacumearren errecogimentue eta Virtutea; valiatuce Caballero au sorguin edo echicerabatez, cenegui eman cio cantidade andibat conseguicegatic vere torpezac; eta echicerarrec paratuzitu vere traza infernale aiec emacume edo nescacha onestarrequi; eta cide (sic) ain fuerteac ece tratatuzue Azo echicerarrequi atera cezala demonioaren figuren baracerenbatera, egoteco eta trataceco libertaderequi Caballero arrequi, eta echicera arrec aterazue demonioaren asistenciarequi eta iduquicitue Caballero arrequi vere torpezac eta desonestidadeac. Vicituce guisa artan cembai (sic) illabetes, eguiten zitula

## MANUEL DE LECUONA

asco vecatu mortale, eta confesacencela eta comecatu zorci egunetic zorci egunera sacrilegamente; ezu errezacen solo cumplimentus eta emateagatic satisfacio vere amari; viciçe amancebaturic eta galduric vere // virginididia (?) eta vertutea eta eguiñic esclavo vil demonioarena; cergatic echicera infame arrec esancio egun batez izabec: Icusazu nola portacen da Demonioa zurequi eta nola serbicen zaitun zure gusto eta deso (sic) gucietan, eta ala errazio izanenda zuc correspondizozun eta eguin dizozun alaco serbiçiorembat Demonioari; eta errespondatucio nescacha arrec: Cer eguin dezaquet nic? Eta esancio Echicera malvatuarrec: Nic entregatunio nere anime Demonioari. Eta nescachorrec esanzu: Bada nic ere entregacen diot nereanime eta eguiten naiz arren esclavo; instante artan sentitu zu esclavitudebat ain andie ece iduricencequio zauquela preso Demonioç cadenabazuqui, eta ezaquela eguin besteric baicic obedecitu aguincen cizquion gaucе gucietan; arquicence miserablea estado infeliz ontan eta alare confesacence zorçiti zorci egunera cilcen cituela vere vecatuec: ezautzuz vere confesoreac zer estadotan arquicencen (sic) eta esancio confesatu zezaquiela vere vecatuec eta fragilidadeac; bana Demonioç erchicencio estarie (sic) eta lotucencio vere mingaña ez confesaceco; egorrizu vere confesoreac veste confesore prudente batengana, ezueña ezaucen, ia guisartan manifestacen cituen (sic) vere vecatuec; eta izance ain prudentea confesoreori, ece esancio ezuela zer alqueric izan confesaceco, ece aunque arren vecatuec barimacide izesoan ura tinte dagon baño gueiago ere, barcatuco cequizquiola; eta vereala manifestatuzue lagrime andibazuqui eta esanzu: Ay Jauna: ni naiz munduen den vecatarieen andiena eta ecin sinistatudezaquit Jangoicuaç barcatu dezazquidala nere vecatuec, eta esancio confesoreac (sic) cergatic entregatu nion nere (sic) anima Demonioari. //.

(Repetido)

O, Jangoicuaç ezala permititu suceditu daquioten olaco desgracie nere adituorioan daudenegui, penitencie bada nere catolicoac, penitencie, penitencie (sic) eguiten du pecatari andienac izan daicen santuric andienac Vecatari eta andie izance David vecatari eta andie izance Santa Maria Magdalena, eta penitencierequi borratu cituste veren vecatuec.

Por la copia:

Manuel DE LECUONA